



ERRI Pape Ra

2021eko ekaina ▪ 53. zenbakia

Amasa-Villabona eta Zizurkil gehituta bete du UEMAK 30. URTEURRENA, EUSKALGINTZAREN ETA ERAKUNDEEN AITORTZAREKIN

UdalERRI euskaldunen zaintzan eta aitortzan UEMA aitzindaria, bide urratzailea eta eredugarria izan dela nabarmendu dute bateko eta besteko eragileek. Gaur egun 90 udalERRI DIRA UEMAKO KIDE, eta denen artean 266.000 biztanleko LURGUNE euskalduna osatzen dute. **2-3**



'Arnasa gara' kanpaina: saretik herrira Herritarrekin lantzeko tailerra sortu du UEMAK UdalERRI euskaldunen eta arnaguneen garrantzia nabarmentzeko kanpainak herrietan izango du orain jarraipena. **4. or.**

'Bertatik bertara' kanpaina ere abian Ostalariak eta merkatariaak izango dira bidelagun Zerbitzu sektorean euskara ikusarazteko kanpaina abiarazi du UEMAK, bisitari, ostalari eta merkatarientzako baliabideekin. **5. or.**

UEMA: 30 URTE HERRI EKIMENAREN ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ZUBIGINTZAN

1991ko maiatzaren 5ean sortu zen UEMA, 28 udalek Aizarnazabalen egindako batzarrean



Hainbat udalek mankomunitatea sortu zutenetik, udalak eta udalerriak euskalduntzeko hainbat ildo garatu ditu UEMAK, batzar nagusiak onartzen dituen urtez urteko ekimenen baitan: administrazioa euskalduntzeko bitartekoak, herritarrek kontzientziazteko zerbitzuak, zerbitzu sektorean euskara nabarmentzeko baliabideak, eta abar.

UDALERRI EUSKALDUNEN MUGIMENDUA

Euskal Herrian Euskaraz elkarteak udaletan aurkeztu zuen mozio baten harira sortu zen Udalerri Euskaldunen Mugimendua, 1988an. Euskara ofiziala zenetik hainbat urte igaro ziren arren, udalek zailtasun handiak zituzten euskaraz aritzeko, eta egoera irauli nahian herri euskaldunetako udalek euskara hutsean lan egitea proposatu zuen EHEREn mozio hark. Euskal Herriko 32 udalek onartu zuten mozioa, eta harekin batera baita Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udal Arautegia ere, administrazioan eta udalerrietan euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzeko eta bitartekoak jartzeko asmoarekin.

Onartutakoa bete nahian hasi orduko, ordea, udal haiek laster konturatu ziren elkarren arteko koordinazioa beharrezkoa izango zutela, eta mozioa onartu zuten 32 udal haietako batzuk elkartzen hasi ziren. Euskara hutsean aritzeko, laguntza tekniko eta juridikoa ere behar izan zuten, eta Euskal Kulturaren Batzarreak eskaini zien hura.

Elkartzen hasi ziren udal haiek Udalerri Euskaldunak izena hartu zuten, eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea sortzea izan zen hurrengo urratsa.

UEMA: 1991ko maiatzaren 5ean, Aizarnazabalen

1991ko maiatzaren 5ean Aizarnazabalen Udalerri Euskaldunen Eguna antolatu zuten, festa eta aldarrikapena uztartuz, eta UEMA osatu zuten lehen udaletako ordezkariak egun hartan egin zuten UEMAREN sorrerako batzarra ere. Estatutuak onartu ondoren, 1992ko apirilean erregistratu zuten mankomunitatea, 19 udalekin.

Horrela, hasieran herri ekimeneko mugimendua zenak izaera juridikoa hartu zuen, eta UEMA udalak biltzen zituen mankomunitatea izanik, erakunde publikoa ere bihurtu zen. Lehenengo 19 udal haiek udalerrri txikiak ziren, eta ez zuten baliabide handirik, eta UEMA hasi zitzaizen udala euskalduntzeko behar zituzten baliabideak eskaintzen eta ematen.

Denborak aurrera egin ahala, udal berriak gehitzen joan ziren, eta arazo ad-

ministratiboak eta oztopo juridikoak ere heldu ziren. 1995ean Espainiako Epaitegi Gorenak UEMAREN estatutuak ez legezkotzat jo zituen, eta mankomunitateak estatutuak berritu eta egokitu behar izan zituen, beti ere hasierako helburuei eta funtzionamenduari eutsita.

Oztopoak behin eta berriro iritsi ziren epaitegietatik, baina udalak euskalduntzeko borondate sendoa erakutsi zuten udalerrri euskaldunek, eta helegiteei eta epaiei aurre eginez, euskaraz lanean jarraitzea erabaki zuten.

“OZTOPOAK BEHIN ETA BERRIRO IRITSI ZIREN EPAITEGIEK, BAINA UDALEK EUSKARAZ LANEAN JARRAITZEA ERABAKI ZUTEN”

UDALERRIARI EUSKALDUNTZEKO LANA

Hasieran dena egiteko aurkitu zuten udalak, eta behar horri erantzun zion lehen urteetan UEMAK: herritarrentzako inpri-



Maiatzaren 29an ohiko batzar nagusia egin zuen UEMak Amasa-Villabonan, eta ondoren 30 urteko ibilbidea gogoratzeko ekitaldia egin zuten, euskalgintzako eta erakunde publikoetako ordezkariak zabalaren babesarekin. Argazkiak: Egoitz Bengoetxea.



EKITALDIA: 'UEMA: 30 URTE, 90 HERRI, BIDEA ZABALTZEN'. OSORIK IKUSGAI: [LABUR.EUS/UEMA3090](https://www.labor.eus/UEMA3090)

makiak, txostenak, udal osoko bilkuren aktak, kartelak, errotuluak, irudiak eta abar euskaraz eskainiz.

Horrela, euskalduntzeari dagokionez, 30 urteko ibilbidean erreferentzia bilakatu da UEMA eremu instituzionalan. Izan ere, euskaraz bizi eta funtziona daitekeela erakutsi dute mankomunitateko kide diren udalek.

Hasierako 19 udal horiek 90 dira gaur egun, eta herri txikiak ez zik tartean dira Zarautz, Tolosa, Azpeitia, Bergara, Bermeo edo Oñati bezalakoak ere. Guztien artean, 266.000 biztanle inguruko lurruna osatzen dute UEMAn dauden udalerrri euskaldunek, eta lurrun horrek euskararentzat duen funtzio estrategikoa ikusarazten ere lagundu du UEMak. Zehazki, udalerrri euskaldunak eta euskararen arnaguneak babesteko, sendotzeko eta aldarrikatzeko ere era-

gile eta erreferente nagusia bilakatu da UEMA.

HERRITARREN KONTZIENTZIAZIOA

Euskaraz bizi nahi duten udalerrien beharrei erantzuteko, UEMak hainbat ildo eta zerbitzu ditu gaur egun. Udalen euskalduntzeaz gain, udalerrri euskaldunen zaintza eta garapena, eta bertako herritarren sentsibilizazioa eta ahalduntzea dira nabarmenenak, horietan eragitea udalerrri euskaldunei bizirik eusteko ezinbestekoa dela iritzita. Ildo eta zerbitzu horien artean daude eskoletako hezkuntza proiektua, eragin linguistikoaren ebaluazioa, edota merkataritza eta ostalaritza euskaratzeko ekimenak.

UEMAren lantalde teknikoak bideratzen du hori guztia herriz herri, udalen beharren eta eskaeren arabera.

Amasa-Villabona eta Zizurkil UEMako kide dira pasa den maiatzaren 29az geroztik. Horiekin, Tolosaldeko 28 herrietatik 18 dira UEMako kide. Guztira, berriz, 90 udal dira mankomunitateko kide, guztien artean 266.000 biztanleko lurruna euskalduna osatuz.

HERRIA: AMASA-VILLABONA
HERRIALDEA: GIPUZKOA (TOLOSALDEA).
BIZTANLEAK: 5.881
EUSKALDUNAK (INDIZEA): %74



Azken datu soziolinguistikoaren arabera, ezagutzari dagokionez, euskaldunen indizea %74 da Amasa-Villabonan. Euskararen erabilerrari dagokionez, ordea, %36 ingurukoa da erabilera kalean. Etxean, berriz, herritarren %42 inguruk dute euskara ohiko hizkuntza. Horren aurrean, hizkuntza ohiturak aldatzeko herriak "hizkuntza politika eraginkor eta ausartak" behar dituelakoan dago Amasa-Villabonako Udala. Horregatik egin dute UEMako kide izateko urratsa: "UEMAk zerbitzu ugari eskaintzen dizkie udalei, eta guk zerbitzu horiek baliatu nahi ditugu, euskaraz lasai bizi ahal izango den herri bat izatea lortzeko".

HERRIA: ZIZURKIL.
HERRIALDEA: GIPUZKOA (TOLOSALDEA).
BIZTANLEAK: 3.025
EUSKALDUNAK (INDIZEA): %72,6



Zizurkilgo Udalak apirilko udal osoko bilkuran erabaki zuen UEMako kide izatea. Oro har euskaraz bizi dira Zizurkilen. %72,6 da euskaldunen indizea, baina udalerrri euskaldun gehienetan bezala beheranzko joera islatzen dute azken urteotako datuek, eta "egoera iraultzeko eta euskararen arnagune izaten jarraitzeko gogoz" hartu dute erabakia.

ARNASGUNEEN GARRANTZIA NABARMENTZEKO ETA HIZKUNTZA OHITUREN INGURUAN HAUSNARTZEKO KANPAINA EGIN DUTE UEMAK, NAFARROAKO GOBERNUAK ETA EUSKO JAURLARITZAK

DUELA BI URTE 'ARNASA GARA' KANPAINA ABIARAZI ZUTEN HIRU ERAKUNDEEK, BESTE HAINBAT ERAGILEREKIN ETA UDALEKIN BATERA. ARNASGUNEK EUSKARARENTZAT ETA EUSKAL HERRIAREN ZATUTAKO GARRANTZIA NABARMENDU ZUTEN ORDUAN, ETA BIDE HORRETAN SAKONDU DUTE ORAIN, BI HILABETEZ LUZATU DEN KOMUNIKAZIO KANPAINA BERRIAREKIN. HORRENTARAKO, HIZKUNTZA OHITUREN INGURUAN HAUSNARTZEKO ZORTZI BIDEO LABUR SORTU DITUZTE, ETA HORIEK ZABALDU DITUZTE SARE SOZIALETAN ETA MEZULARITZA APLIKAZIOETAN, HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEKO. KANPAINARI HAUSPOA EMATEKO, MUSIKARIEN, AKTOREEN ETA KAZETARIEN ETA KIROLARIEN LAGUNTZA IZAN DUTE.

Hiru Damatxok ekoitzi dituen zortzi bideo izan dira udaberri honetan kanpainaren ardatza, eta bi hilabetez astero bideo bat zabaldu dute, sare sozialetan eta ohiko mezularitza aplikazioetan. Bideoek udalerrri euskaldunetan eta euskararen arnasguneetan ohikoak diren egoerak islatu dituzte: turismo eskaintzan euskara nabarmentzearen beharra, guraso euskaldun askoren konplexuak, euskarari eusteko beharra, arnasguneetako herritarrak jokatzeko duten antena efektua, hitanoak transmisioan duen garrantzia, etorri berrien hizkuntzarekiko aurreiritziak edota euskalkien aberastasuna, besteak beste.

Bideoak zabaltzeko, berriz, aktoreak, musikariak eta kazetariak izan dituzte lagun, eta horiekin zuzeneko elkarrizketak ere egin dituzte astero *Berria* egunkariaren Instagram kontuan, bideoek lantzen dituzten gaien inguruan. Antton Telleria, Aitziber Garmendia, Xabi Xskara, Sambou Diaby, Erika Olaizola, Ander Lipus, Ainhoa Etxebarria eta Iratxe Urkiaga



Bingen Zupiriak, Ana Ollok eta Iraitz Lazkanok aurkeztu zuten kanpaina, martxoan, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta UEMAREN izenean. Silvia Marañon Etxarri Aranazko alkateak egin zien harrera.

izan dira elkarrizketatuak astez aste, martxoaren 22an hasi eta maiatzaren 16a arte.

ORAIN, BIDEOEN EDUKIA LANTZEKO TAILERRAK, HERRIZ HERRI

Orain, sare sozialetako kanpaina amaituta, UEMAKO kide diren herrietan emango zaio jarraipena kanpainari, bideoetan agertutako edukiak sakonago lantzeko aukera eskainiz. Zehazki, bideoen edukia lantzeko tailerra prestatu du UEMAK.

Bi orduko iraupena izango du tailerrak, eta herritarrak arnasguneek euskararen biziberritzean duten garrantziaz kontzientziatzea da helburua, betiere eguneroko hizkuntza ohiturekin lotutako arazo eta erronketatik abiatuta, herri mailan egon daitezkeen erronkak identifikatuz, eta horietan eragiteko estrategiak pentsatuz.

Saioaren lehen zatian eduki teorikoa landuko dute herritarrek UEMAKO teknikariekin, eta bigarren zatian kanpainaren muina diren bideoen edukiaz hausnartzeko aukera izango dute.



BIDEO ETA ELKARRIZKETA GUZTIAK [ARNASAGARA.EUS](http://arnasagara.eus) WEGUNEAN IKUSGAI

Kanpainarako egin diren eta astez aste zabaldu diren zortzi bideoak arnasagara.eus webgunean daude ikusgai, bideo bakoitzaren inguruan aktore, musikari edo kazetariei *Berria* egunkariaren Instagram kanalean astero egindako elkarrizketekin batera. Horretarako, nahikoa da www.arnasagara.eus/bideoak helbidera jotzea.



ERBITZUAK

'BERTATIK BERTARA' kanpaina abiaraziko du aurten ere UEMAK udan, zerbitzu sektorean euskara areagotzeko

Ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera izango da kanpaina, bisitariak zein bisitariekin harremana duten zerbitzu sektoreko arduradunak eta langileak euskara aintzat hartzera gonbidatzeko. Horretarako hainbat baliabide eskainiko ditu UEMAK, eta ia bezala 200.000 mahai-gaineko inguru banatuko ditu ostalarien artean.

Bertako produktuen, paisaiaren eta gainerako eskaintza zabalaren artean, udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela nabarmendu nahi du aurten ere UEMAK, kanpainen parte hartuko duten udalekin batera. Horretarako, bisitariarentzat eta zerbitzu sektoreko arduradunentzat eta langileentzat hainbat baliabide prestatu ditu, eta ekainaren erdialdetik aurrera erabilgarri izango dira guztiak: udalen webguneetarako eta sare sozialetarako bannerrak eta testuak, tabernetan eta jatetxeetan erabiltzeko mahai gainekoak, sentsibilizazio bideoak, zerbitzu sektoreko eragileei kanpainen berri emateko baliabideak, eta bisitariak telefonoetan erabili ahal izateko hiztegia, besteak beste.

Kanpaina benetan eraginkorra izan dadin, dagozkien sektoreetako arduradunak eta langileak trebatzea giltzarria da, eta horretarako ere *online* saioak prestatu dituzte udaren atarian UEMAK eta udalek. Azken batean, bertako hizkuntza



Aurten ere egundoko eskaera izan du mahai-gainekoak, eta taberna eta jatetxe askotan ikusi ahal izango da udan.

ere kalitatea eta hurbiltasuna erakusteko ezinbesteko osagaia dela gogoratu nahi die kanpainak zerbitzu sektoreko arduradunei. Izan ere, sentsibilizazio saioetan nabarmendu den moduan, "askotan bertako hizkuntza alde batera uzten dugu, bi-

sitariari arreta erdaretatik eskainita. Ez du zentzurik, egindako inkestek eta ikerketek argi erakusten baitute bisitari asko berriaz etortzen dela udalerrri euskaldunetara, eta euskara ikustea eta entzutea gustukoa dutela".

TicketBAI euskaraz jartzeko deia egin du UEMAK, fakturak euskaraz egin ahal izateko

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak abiarazitako ekimena da TicketBAI. Helburu nagusia zerga iruzurra eragozteko duenez, establezimenduetan egiten diren ordainketak kontrolatuko ditu sistema berriak, eta horretarako software zehatza instalatu beharko dute dendariak, ostalariek eta jarduera ekonomikoren bat egiten duten guztiek, nahitaez.

Ekimenak zerbitzu sektore ia osoari eragiten dionez, orain ari dira eskualdez eskualde aurkezpen bilerak antolatzen, laster saltzaile guztiek izan

beharko dutelako sistema informatiko hori martxan.

Hizkuntzari dagokionez, ordea, hutsune nabarmena du. Ogasunek hamarnaka aplikazio informatiko homologatu dituzte, TicketBAIrekin uztargarriak direlako, eta horietako edozein jartzea erabaki dezake denda, taberna, jatetxe edo zerbitzu sektoreko edozein establezimenduk. Oraingoz 149 aplikazio daude baimenduta, eta horietatik 34 (%23) soilik jar daitezke euskaraz. Softwarea garatzen eta instalatzen duten informatika zerbitzuetatik, ordea, argi diote:



euskaraz konfiguratu ezin diren aplikazio gehienek ezin dute fakturarik euskaraz egin. Bezeroen hizkuntza eskubideak bermatzeko eta kalitatezko zerbitzua eskaintzeko, beraz, giltzarria da TicketBAI hasieratik euskaraz jartzea.

Kalean zenbat euskara entzuten den neurtuko du UEMAk



Denera ehun udalerritan egingo da neurketa: UEMAko kide diren 90 herrietan eta Tolosaldeko gainerako herri guztietan.

2017an bezala, UEMAk euskararen kaleko erabilera neurtuko du mankomunitateko kide diren udalerrietan, udalen eta herrietako taldeen laguntzaz. Dozenaka boluntario ari dira neurketak egiten. Udalerrri gehienetan maiatzean egin dituzte neurketak, eta beste batzuetan ekaina baliatuko dute; beste herri multzo batean, berriz, irailean eta urrian egingo dute neurketa, Soziolinguistika Klusterraren bidez.

Neurketa horiek kaleko egoeraren argazki bat emango dute, eta aukera jarriko dute herriz herriko egoera sakonago aztertzeko. Izan ere, 2021ean egingo dira euskararen egoerari buruzko azterketa nagusiak: inkesta soziolinguistikoa, zentsua eta kaleko erabileraren Euskal Herriko neurketa. UEMAko udalerrietako neurketari dagokionez, herriz herriko datuak ez ezik, UEMAko udalerrietako bilakaeraren analisi sakona egingo du Soziolinguistika Klusterrak, bilakaera zein den aztertzeko. Guztira ehun udalerritan egingo da neurketa, UEMAko udalerrriak ez ezik Tolosaldeko guztiak ere sartuko baitira azterketan, Galtzaundi Euskara Taldearekin egindako hitzarmenari esker.

Udalerrri euskaldunetako ikastetxeetako hizkuntza erabilera aztertzen ari da UEMA

Haurren hizkuntza erabilera kezka iturri da udalerrri euskaldun askotan, baita ikastetxeetan ere, eta hori aztertzeko ikerketa lan sakona jarri du martxan UEMAk, Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean. Bi urrats ditu ikerketak. Lehenik, azterketa kuantitatiboa egin da UEMAko udalerrietako 36 ikastetxetan: jolastokiko hizkuntza erabilera neurtu dute ikastetxeek, kaleko erabilera neurtzeko sistemaren bidez. Azterketa horietan dagoeneko sumatu dira diferentzia batzuk ikastetxearen, adinaren eta sexuaren arabera.



UEMAko kide diren udalerrietako 36 ikastetxetan neurtuko dute haurren hizkuntza erabilera.

Hain justu ere, diferentzia horiek aztertzea izango da ikerketaren bigarren fasearen helburua. Horren baitan, azterketa kualitatiboa egingo da hainbat ikastetxetan, hizkuntza bat ala bestea hautatzeko haurrek dituzten joerak eta horiek eragiten dituzten faktoreak identifikatzu nahian. Eider Saragueta EHUko irakaslearen zuzendaritzapean egingo da ikerketa hori, eta hainbat adituk parte hartuko dute. Behin diagnostikoa osatuta, erabilera indartzeko estrategiak lantzea izango da ikerketaren zeregina, udalerrri euskaldunetan abian jarri ahal izateko.



UDALERRI EUSKALDUNETAKO GAZTEEN TOPAKETAK IZANGO DIRA EKAINAREN 28TIK UZTAILAREN 4RA, ZUMAIATIK LEKEITIORA

SEKULA BAINO GAZTE GEHIAGOK EMAN DU IZENA AURTEN UDALERRI EUSKALDUNETAKO GAZTEEN TOPAKETAN PARTE HARTZEKO. ZEHAZKI, 54 HERRITAKO 164 LAGUNEK. LURRALDE TASUNA, GENEROA, HERRI KOPURUA ETA GAINERAKOAK KONTUAN HARTUTA EGIN DA ZOZKETA, ETA LEKUA LORTU DUTENEK ZUMAIATIK LEKEITIORAKO BIDEA EGINGO DUTE EKAINAREN 28TIK UZTAILAREN 4RA. BEGIRALE IZATEKO, BERRIZ, 132 LAGUNEK EMAN DUTE IZENA. KASU HORRETAN, SEI BEGIRALE AUKERATU DIRA, BI SUKALDARIREKIN ETA PRAKTIKETAKO BESTE BI BEGIRALEREKIN BATERA. GAZTEAK KONTZIENTZIATZEA DA HELBURUA.



Azken urteotan bezala, ibiltaria izango da aurten ere ekimena, eta egitarau oparoa izango du.

Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta eragile aktibo bihurtzeko helburuarekin sortu zituen UEMAK udalerrri euskaldunetako gazteen topaketak, duela bost urte. Izan ere, herritarrek kontzientziatzeko ildoaren baitan, eskoletarako Hedatu hezkuntza proiektua abian du UEMAK, baina hezkuntza araututik kanpo aisialdian eragitea ere garrantzitsua dela iritzita, udalerrri euskaldunetako gazteak elkartzeko eta sentsibilizatzeko ekimena ere antolatzen du. Ekimen ibiltarian, egunegun eta herriz herriz udalerrri euskaldunei, euskararen arnaguneei eta hizkuntza ekologiar buruzko hainbat tailer izango dituzte, zeharkatuko dituzten herrietako kultura eta nortasuna ezagutzeko saioekin batera. Era berean, aisialdiarekin lotuta, aisialdiko begiraleak eta hezitzaileak formatzeko ikastaroa ere prestatu du lehen aldiz UEMAK, udalen aisialdi eskaintzan aritu behar dutenekin hizkuntza irizpideak lantzeko. Horiez gain, gazteak euskarara erakartzeko estrategiak ere landuko dira begiraleekin.

EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA LANTZEKO HERRI MAILAKO PROIEKTU AITZINDARIA ABIARAZI DUTE ZALDIBIAN



Proiektuaren Talde Eragileko kideak, Zaldibiako Lardizabal Herri Eskolan.

MIGRAZIO tasa altua du ZALDIBIAK, eta eskolan BEREZIKI SUMATZEN DA ALDAKETA, HIRU IKASLETIK BATEK JATORRI ATZERRITARREKO GURASOAK BAITITU. HORIEK EUSKARAZ HEZTEKO PROIEKTUA ABIARAZI DUTE HAINBAT ERAGILEK, BAT EGINDA. Tartean da UEMA ere.

Ikasle denak euskaraz hezteko erronkari erantzutea eta familiekin harreman egokia izatea lehenetsita, herri mailako proiektu aitzindaria abiarazi dute Zaldibian, euskarari eutsi nahian. Biztanle berriak euskaraz errotzea ezinbestekoa ikusi dute, euskararen erabilerak behar bezala egin ez dezan. Horretarako, neurri eta estrategia praktikoak probatuko dituzte. Zaldibiako Udala, Lardizabal Herri Eskola, UEMA, HUHEZI (Mondragon Unibertsitatea), Ausa Gaztelu Guraso Elkarte eta Etxekonekok Elkarbizitza Taldea elkarlanean aritu dira proiektua mamitzen, eta Talde Eragilea osatu dute proiektuan inplikaturako eragile guztietako ordezkariarekin, eta talde horrek definitu, proposatu, eta koordinatuko du prozesua.

